#mareaurdina

# MAREA URDINA ELKARTEA

Aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioaren aldeko taldea

## 2021 URTEKO MEMORIA

## AURKIBIDEA

1. ELKARTEAREN HELBURUA....3
2. AURRERA ERAMANDAKO JARDUERAK....4
3. PROIEKTU URDINAK....48

# 1. ELKARTEAREN HELBURUA

Helburua bakarra da, aniztasun funtzionala duten pertsonen INKLUSIOA (bai, letra larrietan). Inklusioa ez bakarrik eskolan, baita kirola, kultura eta aisi aldian ere. Gure bailarako aniztasun funtzionala duten pertsonak herrian sortzen diren aktibitate eta dinamika ezberdinetan leku bat izan dezaten egingo dugu lan, horretarako herriko agente eragile ezberdinei (udal, kirol elkarte, musika eskola, edozein ekimen…) inklusioaren “betaurrekoak” jartzen saiatuko gara.

Iaz Marea Urdinera “zertan lagundu dezaket?” galdera eginez gerturatzen zirenei “zer dakizu egiten?” galderarekin erantzuten genion. Hemendik aurrera gugana gerturatzen den orori “eta zuk/ek zer egin dezakezu/e inklusioaren alde?” galdetuko diogu.




Herrian sortzen den edozein egitasmo, ekintza, kirol, kurtso, jardunaldik… inklusioaren ikuspegia landua izatea nahiko genuke eta gure indarrak hor ipiniko ditugu.

Bestalde, badakigu batzuetan aniztasun funtzionala duten pertsonen beharren arabera ezingo dugula edozein aktibitate edo ekintzetan parte hartu, kasu hauetan Marea Urdina Elkartea egokitutako iharduerak antolatzen saiatuko da.




Azkenik eta ez garrantzi gutxiago duelako, sentsibilizazio eta kontzientziazio ekimenak bultzatuko ditugu gure bailaran. Iazko Marea Urdinetik zerbait ikasi bagenuen sentsibilizazioa zela gizarte inklusibo bat eraikitzeko zimentu edo oinarria izan zen.

## 2. AURRERA ERAMANDAKO JARDUERAK

Marea Urdineko kideak 2019 urtean parte hartu duten jarduera INKLUSIBO, EGOKITUTAKO ekimen eta egin diren KONTZIENTZIAZIO ihardueren berri emango dugu hemen.

Zein helbururi egiten dion erreferentzia goiburuaren kolorearekin adieraziko dugu.

Jarduera arrunta

Egokitutako jarduera

Kontzientziazio jarduera

Informazio guzti hau ondorengo lekuetan aurkitu dezakezue:

- **Web orrian: https://www.mareaurdina.org/**
- **Facebook:** https://www.facebook.com/mareaurdina2018
- **Twitter:** https://twitter.com/mareaurdina
- **Instagram:** https://www.instagram.com/mareaurdina/
- **Blogger:** https://mareaurdina.blogspot.com/
- **Youtube:** https://www.youtube.com/mareaurdina

***Data: 2021ko Urtarrila***

## Marea Urdina egutegia

Marea Urdinatik jaso ezazu gure urteberrionik gertukoena, aurten, bai aurten, elkar berriro besarkatuko garen urtea izango baita.Gogoratu "DENOK GARA URDIN!"

Urteberrion!

Informazioa gehiago: www.mareaurdina.org/egutegia






***Data: 2021ko Otsaila***

Gaur Otsailak 15 Angelman Sindromearen Nazioarteko Egunean Marea Urdinako kide den Aitorren kasua azaltzen duen atzoko artikulua nahi dugu publikatu. Gora Aitor! Zu ere URDIN! #AngelmanDay2021 #sindromeangelman Artikulu osoa: https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/actualidad/sociedad/2021/02/14/esperanzas/1089195.html

# Día Internacional del Síndrome de Angelman: "esperanzas" en la investigación

NÉSTOR RODRÍGUEZ | 14.02.2021 | 00:13



Sobre estas líneas, Aitor con su madre. En la imagen de mayor tamaño, con el comunicador dinámico que utiliza para verbalizar sus necesidades.

**Ruben Plaza**

**Mañana se celebra el Día Internacional del Síndrome de Angelman, trastorno genético que sufre el mutrikuarra Aitor Antxustegi y para cuyo estudio tratan de recaudar fondos tanto su familia como la asociación**

**Aitor Antxustegi** es un chaval de once años que tiene **el síndrome de Angelman**, una enfermedad rara que afecta a uno de cada 20.000 o 30.000 recién nacidos en el Estado y de la que **apenas hay alrededor de 30 casos en Euskadi**, lo que hace que la investigación para una posible cura vaya "lenta". "El beneficio que obtienen las farmacéuticas es muy pequeño. Invierten y, al mínimo problema, descartan", explica su padre, Joseba. Pero ninguna familia

Pasa den astean jaso genuen Odriozola Ardoak-ek gabonetan saldu zituen otarra solidarioetatik ateratako diru-laguntza. Mila mila esker! Zuek bai zaretela Urdinak!



Gaur Otsailak 18 Asperger Sindromearen Nazioarteko Eguna, badakizu zer den? #asperger



Otsailak 27 eta 28 12:00tan Baztartxo Antzokian (Azkoitia), bazatoz? Infernuko su URDINAK erreko gaitu.... #kbaretmusikala






MAXIXATZEN

AZKOITIA

# 'K-baret' antzerki musikala Marea Urdinaren olatura batu da

Andoni Elduaien 2021-02-27 14:50




Bigoterik Gabe antzerki taldeak asteburuko lehen emanaldia eskaini du gaur eguerdian, Baztartxo antzokian.



Kirola egitea denon eskubidea delako, lanean jarraituko dugu.



MAXIXATZEN

AZKOITIA

## Desgaitasuna duten ikasleen kirol premiei erantzuteko bilera egin zuten atzo, Elkargunean

Andoni Elduaien 2021-02-26 12:48

*Atzo egindako bilera. (Argazkia: udala)*

**Aldundiak, Azkoitiko eta Azpeitiko Udalek, Marea Urdinak eta Kirol Egokituko Federazioak parte hartu zuten bileran.**

Gaur Otsailak 28 Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna da, Marea Urdinatik gure babesa eman nahi diegu egoera latz hau pairatzen duten pertsonei, batzuk gure elkarteko kideak. Informazio gehiago: https://enfermedades-raras.org/



***Data: 2021ko Martxoa***

Gaur Martxoak 3 Entzumenaren Nazioarteko Eguna da. Badakizu 466 miloi pertsonak gaitasuna sortzerainoko entzumen galera izan dutela eta ez bada neurririk hartzen 2050-rako 900 aurrikusten dituela OMS-k (10etik 1)? Informazio gehiago https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/deafness-and-hearing-loss



Logopedaren eginkizun nagusia hizkuntza barruan dauden eremuetan zailtasunak dituzten pertsona guztien komunikazioa ezarri, lagundu, erraztu eta indartzea da. Aniztasun funtzionala duten eta ez duten askok erabiltzen dugun zerbitzua da logopedia, gaur beraien eguna da. Milaesker gure haurrekin egiten duzuen lan bikainarengatik. #logopedia



Ondarroa BHI-tik izan genuen eskaerari erantzunez, Erizaintza Zainketa Osagarriak eta Haur Hezkuntzako Zikloetako ikasleei Marea Urdinari buruz hitzaldi bat eman genien. Etorkizunean aniztasun funtzionala duten haur eta helduen zaintzataz arduratuko diren profesional sentsibilizatuak izango direla ez dugu dudarik egiten. Gora zuek! Zuek ere URDIN! #pirulaurdinak




Gaur Martxoak 8 Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean Marea Urdinatik gure babesa adierazi nahi dugu. Gaur Marea Morea izango gara. #martxoak8



Gaur Down Sindromea duten pertsonen nazioarteko eguna da. Marea Urdinatik beraietaz gogoratu eta zoriondu nahi ditugu. Gora zuek! @atzegi #sindromededown #downsindromea




Martxoak 25 Osteguna 19:00ean Azkoitiko Elkargunean egingo den Marea Urdina Elkartearen asanblada irekira gonbidatzen zaituztegu. Joateko interesa duen inor ezagutzen baduzue, luzatu beraei ere gonbidapena, bilera irekia izango bait da. Denak izango dira ongietorriak, denok Marea Urdina baikara. Ordurarte!



Donostiko KITZIN Caritaseko Bidezko Merkataritza dendan Martxoa Marea Urdinaren hilabetea izango da. Mila mila esker! Zuek ere URDIN! #mareaurdinanaiz



Marea Urdinak antolatuta eta Danobat group-en babesarekin, asteburu honetan

Azpeitian aniztasun funtzionala duten pertsonen monitore eta entrenatzaileentzako zuzendutako ikastaro trinkoa emango da.

Formazioa baita kirol egokitu eta inklusibo batentzako oinarria.




2+

‘Testigantza konfinatuak, konfinamenduaren ertzetan’ deituriko ikus-entzunezko berezi bat egin du BERRIAk, eta konfinamenduan bereziki gaizki pasatu zuten hainbat pertsonaren testigantza ugari biltzen ditu. Lau ataletan banatuta dago, horietako bat Marea Urdinako kide den Lukenena.

Mila esker Berriari aukera hau emateagaitik.



***Data: 2021ko Apirila***

Apirilak 2 Autismoaren Nazioarteko Eguna da, gogoratzen iaz nolakoa izan zen egun hura? Etxetik Urdindu genuen mundua! Eta aurten? Animatzen zara zerbait egitera? Egon adi gure proposamenari…







#URDINDUGUREMUNDUA
Zer da?
Apirilak 2 Autismoaren Nazioarteko Eguna URDINTZEKO iniziatiba bat da.
A2 AUTISMOAREN NAZIOARTEKO EGUNA
Nola hartu dezaket parte?
Edonork hartu dezake parte, bakoitzak dagoen lekutik bere aletxo URDINA ipiniz
Etxe eta irekita dauden eraikinetan
Etxe,udaletxe, komisaldegi, saltoki, supermerkatu, automobil,... -etan zerbait URDINA jarriz (kartel, folio bat ,ohial edo tela handi bat balkoian, ...) eta gauean ARGI URDINEZ ARGIZTATUZ
LIGHT IT UP BLUE
Banakako pertsonak
Pertsonen kasuan zerbait URDINA soinean eramanez (nikia, jertsea, musukoa, pultsera, azkazalak edo espainak pintatuta, oinetakoak,...)
DENOK
EGUN BERTAN
Marea Urdina Abestia
Marea Urdina abestia irratietan eskatzera animatzen zaituztegu
Urdindu dezagun gure mundua!
gaztea 688605050
688666000
688840840
688854852
670460804
689473337
Animatu eta bidali guri zure argazkia/bideoa sare sozialetatik
#URDINDUGUREMUNDUA
mareaurdina.org


Ez jarri oztoporik gure hego URDINEI
#urdinduguremundua
Apirilak 2 Autismoaren Nazioarteko Eguna
#mareaurdina


GAUR URDIÑEK!!
Gora zuek,eutsi goikei!!
-2:40

Txindoki gainetik goizean goizo, Marea Urdina

#mareaurdinanaiz



Ez da kasualitatea Gipuzkoako Igeriketa Egokituko Txapelketa Azpeitin aukeratua izatea. Mila esker Izarraitz Igeri Elkartea eta Zubiaurre Igeri Elkarteari igeriketa inklusibo/egokituan egiten ari zareten lanagaitik. Zuek ere URDIN! #igeriketaguztiontzat



Bizi garen egoera berezi honetan, Azkoitia Azpeitia Maratoi Erdi birtualari ekin diote hainbat herritarrek eta nola ez, ibilbidea, beraiek dakitena eginez, "antxintxike", urdintzeko ahalegin handia egin dute. Hauspoa bete inklusioz eta aurrera pausoak emanez indarrez, bidelagun XeYeko kideak. Aupa zuen Runner Bihotz Urdinak!

#mareaurdinanaiz







Iban Perez master igerilaria Castellongo Espainiako Master Txapelketatik gurekin gogoratu da. Mila esker Iban! Zu ere URDIN!

Ilusio handia egin digute Dubaitik Ekainek bidalitako babes argazki hauek. Gora zuek! Zuek ere Urdin!

#MAREAURDINAMUNDUAN







Marea Urdinako urteko asanblada aprobetxatu genuen urtean zehar inklusioagatik lan egin duten erakunde, pertsona, dendei… gure ziurtagiriarekin errekonozimendua adierazteko. Aurten K-baret antzerki taldea, Eroski Urola, Hazia, Eguzki, Iroa, Casa Jaca eta Danetik izan dira. Mila esker inklusioarengatik egin duzuen lanagaitik, zuek ere URDIN!

#mareaurdinanaiz

Kirola inklusioaren giltzarrietako bat delako. Gora zuek! Mila esker Maxixatzen

MAXIXATZEN

MAREA URDINA

## Azkoitiak ere izan du ordezkaritza Igeriketa egokituko Gipuzkoako Txapelketan




Gotzon Alberdi eta Luken Orbegozo igerilariek parte hartu zuten atzo Azpeitian ospatutako lurralde mailako txapelketan.

Ez galdu Marea Urdinako kide den Almike Aitorren amari Hitzak egindako elkarrizketa. Zu ere Urdin!

#angelman



LEA-ARTIBAIETAMUTRIKU.HITZA.EUS

**Almike San Millan: "Proiektuarekin mugarik ez dagoela ere azpimarratu nahi izan dut" - Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza**

Aniztasun funtzionala duten haur eta gazteen kirolerako eskubidea bermatzeko lantaldea aurkeztu genuen atzo Azkoitian. Helburua datorren kurtsotik aurrera eskola kirol egokitua (EKE) eta eskola kirol inklusiboa (EKI) martxan jartzea.

Kirola inklusioaren giltzarri nagusienetako bat delako. Gora zuek!



Kataluniako "The Peaks of the Sun" 80 kilometroko mendi lasterketa egin ondoren gure lagun **Imanol Aleson**, Julián Morcillo García eta **Ixaka Oñederra Iñurritegi**k oraindik guri babesa emateko indarrak atera dtuzte. Gora zuek! Denok gara URDIN!

#mareaurdinanaiz



*Data: 2021ko Maiatza*

**Maiatzak 13a Ospitaleratutako Haurraren eguna d**ugu. Marea Urdinako zenbait kidek eta noski, gizartean aurki ditzakegun zenbait aniztasun funtzionalekin bizi diren haur batzuk, badute ospitaletan egonaldiak egiteko joera eta beharra. Egoera berezi honetan, sekula baina ozenago, zuekin bat egiten dugu, bai familia eta baita zaintzaileekin ere. #ospitaleratutakohaurrarenegun a

#díainfanciahospitalizada




Gogoratu gaur izango direla hurrengo urterako Ikas Kirol Egokitua antolatzeko topaketak Azpeitian. Helburua: elkar ezagutu, ume bakoitzaren beharrak ikusi, zalantzak argitu…

Informazio gehiago ondorengo eskutitzean duzue.

Gogoratu izena eman behar dela.

Animo!



2021eko apirilaren 30a

Agur t'erdi,

Urola erdian bizi diren eskola adineko ikasleen %6ak aniztasun funtzional ziurtatu bat du.

Prestatuta al gaude ikasle horien jarduera fisiko eta kirol bizitza sustatzeko? Gure eskola-kirol egiturak prestatuta ditugu kirol inklusibo eta egokitua egiteko?

Orain arteko erantzuna EZ da. Baina, hurrengo ikasturteari begira, erantzuna baiezkoa izateko lanean jarri gara gutuna sinatzen dugun erakunde eta elkarte guztiok. Lan kolaboratibo dinamika bat abiarazi dugu, datorren 2021-22 ikasturtean, eskualdean, gutxieneko eskola kirol egokitu eskaintza bat osatzeko.

Bide horretan, eta errealitatea ahalik eta eraginkorren ezagutzeko asmoz, desgaitasuna duten ikasleen familiei ondorengo topaketetara deitu nahi zaituztegu:

| **AZPEITIA** | **AZKOITIA** |
|---|---|
| Maiatzak 14 (ostirala) | Maiatzak 19 (asteazkena) |
| 17:30etatik 19:00etara. | 17:30etatik 19:00etara. |
| Igerilekuan (azken solairuan) | Intsausti Jauregian. |

Topaketon dinamizazioa Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak gauzatuko du. Berorretan, gauza bi egingo ditugu: Batetik, familiekin elkartu nahi dugu haien premiak entzun eta jasotzeko. Eta bestetik, ikasleen gaitasun eta trebeziak ezagutzeko jolas dinamika batzuk garatuko ditugu. Beharrak ezagutu nahi ditugu, sortu beharreko eskaintzak ahalik eta egokitu eta zehatzenak izan daitezen. Azken hori gauzatzeko, hainbat jolas dinamika bideratuko ditu Kirol Egokituen federazioak, eta familiei entzun eta informazioaren bilketa egingo da.

COVID19 neurriak betetzeko, eta bereziki, topaketen barne antolaketarako **EZINBESTEKOA DA IZENA EMATEA**, horretarako, Kirol Egokituen Federazioen bidez egin beharko duzue izen-ematea. Argibide gehiago ere nahiko bazenu bide beretik jotzea eskatzen dizugu.

| Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa | | |
|---|---|---|
| Telefonoa: 943-462514 | Ordutegia: 09:00 – 14:00 Astelehenetik Ostiralera | Posta elektronikoa info@gkef-fgda.org |

Aurki elkar ikustea espero dugu.

Aniztasun funtzionala duten gure umeeak herriko udaleku irekietan inklusioan parte hartzea nahi izaten dugu baina tamalez batzuetan ez da posible izaten. Behar honi aurre egiteko aniztasun funtzionala duten umeentzat udalekuak antolatu dituzte lehen aldiz Azpetia eta Azkoitian Aldundiak eta Kirol Egokituen Federazioak.

Animatzen zarete? Apuntatu!

Epea: Maiatzak 27

#udalekuakguztiontzat



Aniztasun Funtzionala duten umeentzat aisialdi ekintzak era inklusiboan aurrera eramaten ikasteko, Ekainak 5ean ikastaro bat emango da Azkoitiko Elkargunean. Monitore zareten edo monitore izateko asmoa duzuen guztiak animatu nahi zaituztegu parte hartzera. Aisia ere guztiontzat nahi dugulako.

#aisiaguztiontzat



MAXIXATZEN

AZKOITIA

## Aisia eta kirol jarduera egokituei eta inklusiboei buruzko formazio saioa emango dute ekainaren 5ean

Mailo Oiarzabal 2021-05-24 11:47

(Azkoitiko Udala)

Udalaren Gazteria sailak antolatu du, Elkargunearekin eta Marea Urdinarekin lankidetzan, eta aisialdi jardueretako eta udalekuetako begiraleei zuzenduta dago. Zortzi orduko saioa izango da, doakoa, Izen-ematea irekita dago, plazak mugatuak izango dira eta Elkargunaren webgunean eman behar da izena.

GR11Urdina egiteko elkartu ziren bi lagunak berriro ere proiektu berri batekin datoz, inoiz egin ez den ibilaldi bat egiteko asmoa dute: Trekantabricoa. Berau, oraingoan ere helburu solidario batekin, TREKANTABRICOURDINA deitu diogu, 9 etapa, 9 inklusio aldarrikapenekin izango dira.

Galdu egingo duzu?

https://www.mareaurdina.org/trekantabricourdina



***Data: 2021ko Ekaina***

Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa "Aisia Guztiontzat" ikastaroa ari zaigu ematen, bertan denbora librean aniztasun funtzionala duten umeekin lan egingo dugun 40 pertsona parte hartzen ari garelarik.
Mila esker Azkoitiako Gazteria eta Azkoitiko Udalari, zuek ere URDIN! Denon artean gizarte inklusibo bat lortuko dugu.




***Sartu bideoa***

Marea Urdinako kideak gozamen ederra hartu zuten atzo Lasturreko Gailur Zaldiketako ekinoterapia saioan. Zoragarria Ainhoa eta Naiarak eman ziguten tratua, dudarik gabe errepikatuko dugu. Gora zuek! Zuek ere URDINAK zarete!




Gaur Ekainak 17 CDKL5 urritasunagatiko sindromearen eguna da. Berau X kromosomari lotutako trastorno genetiko bat da eta 42000 umetatik batek izan ohi du. Diagnosi azkar batek dituen onurak oso handiak direnez, lehen bait lehen proba genetikoak egiteak duen garrantziaz ohartarazten digute gaixotasun arraro hau pairatzen duten umeen gurasoek.



Komunikabideak ( irrati, telebista, idatziak ) dira, dudarik gabe, gure hitz egiteko edo idazteko eraren islada. Hizkuntza denak biziak dira eta denborarekin aldatzen joaten direnak. Komunikabideetan nola erabiltzen diren hitzak, gure baitan ontzat ematen ditugu. Baina horrek ez du esan nahi beti ondo daudenik, eta oraingo honetan azaleratu nahi dugu kasuan ez dela bakarrik erabilpen oker bat, baizik erabilpen horretan aipatzen diren pertsonak eta bere famili edo lagunentzat gutxiespena suposatzen du. AUTISTA hitzari buruz ari gara, ez da lehenengo aldia pertsona hauek autistak bezala erakusten direnak berrietan. Ez dira autistak, autismoa duten pertsonak baizik. Beraien kondizio batek ez du beraien osotasuna isladatzen. Bada ordua gauzak behar bezala esatekoa, bakoitzak hartu dezala dagokion ardura eta ipini dezala bere aletxoa bere esparruan normaltasun eta gizarte inklusibo bat lortzeko.




Izarraitz Igeri Elkarteko Masterrak Banyolesko lakutik babesa adierazi digute.

Gora zuek! Beti izan zarete URDIN!



Poz handiz esan dezakegu Bizipoza elkartearen 36. kideak bihurtu garela!
Gure Inklusioaren aldeko ikuspegia partekatzen duten beste elkarteekin batera bide berri bat hasi dugu, elkar aberasteko asmoarekin!
Bakarrik joanda bizkor zoaz baina, hurrun iristeko lagunak behar.

#sareaksortzen




Trekantabricourdina egiten mendian gora zihoala antolatu zuen zozketa irabazi zuen Mikel Abaunz-i agindu zion saria eman dio Imanolek.
Aupa zu eta zu bai zarela URDIN!

#trekantabricourdina



Gaur Ekainak 27 Nazioarteko Gor-Itsuen Eguna da. Naiz eta aniztasun funtzional ez oso arrunta izan, estatu espainiarrean 6000 pertsona daude berau pairatzen dutenak. Informazio gehiago: https://www.once.es/servicios-sociales/sordoceguera

#mareaurdinaegutegia



*Data: 2021ko Uztaila*



Mila esker gure bailaran lehenengo aldiz Udaleku Egokituak aurrera emateagaitik. Zuek ere Urdin!

#aisiaguztiontzat



UZTARRIA

AZPEITIA

KORONABIRUSA AZPEITIAN

## Aurten ere bertan behera utzi dituzte saninazioak

Mailo Oiarzabal 2021-07-05 20:15

*Udal ordezkariak eta eragileetakoak plazan, gaur, festarik ez dela izango iragartzeko atera duten argazkian. (Azpeitiko Udala)*

"Udalak eta eragileek adostasun zabalarekin" hartutako erabakia izan da, erakundeak jakinarazi berri duenez. Santioen eta saninazioen bueltan eragileek antolatzen dituzten ekitaldi batzuk egingo dituzte aurten, baina ez data horietan.

Nahiz eta saninaziorik ez den egongo, egingo diren ekintzak inklusibo eta egokituak izan daitezen lanean dihardugu. Mila esker Azpeitiko Udala aniztasuna kontutan hartzeagaitik, zuek ere URDIN!

#azpeitiaurdina

Pasa den asteburuan eta denboraldia bukatzeko Zubiaurre Master Taldeak bere I ZEHARKALDIA egin zuen, parte hartzailea eta ez konpetitiboa. Bukatu ondoren Marea Urdina ri babesa emateko momentua ere hartu zuten, gora zuek! Zuek ere URDIN!

#mareaurdinanaiz




Uztailaren 20an Azpeitian,Betharram eta Perdillegiko jolas guneetan, haurrentzako parkeak egongo dira egun osoan zehar. Hala Betharrametan 3 urtetik 10 urte bitartekoentzako jolasak izango dira, eta Perdillegin 10 urtetik gorakoenak. Txandak:

Goizez:
10:30-12:00 Txanda inklusiboak
12:00-13:30 Txanda inklusiboak
Arratsaldez:
14:30-15:30 Aniztasun funtzionala duten umeentzat, txanda egokitua.
15:30-17:00 Txanda inklusiboak
17:00-18:30 Txanda inklusiboak

Oharra: Txanda inklusiboetan aniztasun funtzionala duten umeek parte hartu ahal izango dute erreserbarik gabe, gogoratu udalak emandako txartela soinean ematea.



Abentura benetan kementsua zuten gure lagun Imanol eta Julianek aurretik eta arrazoi batzuek direla medio ezin izan dute aurrera jarraitu. Ala ere gurekin gogoratzeko momentuak izan dituzte, guretzat beti izango zarete URDIN! Gora zuek!

#mareaurdinanaiz




Uztailerako antolatutako ekintza berezien baitan, datorren asteartean, uztailak 27, haurrentzako ur jolasen parkea izango da egun guztian Betharrametako jolas lekuan. Adin guztietako haurrek jolasteko parkea izango da eta doakoa izango bada sarrera ere, beharrezkoa izango da gonbidapena izatea (guraso edo haurren arduradunek ez dute gonbidapenik beharko eremura sartzeko).




Txandak:
Goizez:

- 11:00-12:00 Txanda inklusiboak
- 12:15-13:15 Txanda inklusiboak

Arratsaldez:

- 14:30-15:30 Txanda Egokitua
- 15:30-16:30 Txanda inklusiboak
- 16:45-17:45 Txanda inklusiboak
- 18:00-19:00 Txanda inklusiboak
- 19:15-20:15 Txanda inklusiboak

Mila esker Azpeitiko Udalari.
Animatu eta azaldu!

Ona hemen Marea Urdina ko kide den Juan Ramon Alberdik Donostiako Hondalea-ren irisgarritasunaren inguruan idatzitako iritzi artikulua. Zoragarria! Juan Ramon, zu ere URDIN!

# Artearengana iristeko gaitasuna

2021eko uztailak 27

0

Artea da, ziur aski, muga material zein espiritualak bildu eta zeharkatzen dituen kontzeptu bakarrenetakoa. Alabaina, berezko sentsibilitatea, edo jasotako prestakuntza dela medio, arrotzagoa edo ulergarriagoa bilakatzen zaigu, horregatik esan genezake pertsona batzuek gaitasun handiagoa dutela artearen esentzia ulertzeko. Edo beste modu batera adierazita, artearengana iristeko. Alta, artelana ikusgai dagoenaren tokiaren arabera, berarengana heltzeko erraztasuna edo zailtasuna beste parametro batzuetan ulertu behar da. Nik mintzagai dakarkizuedanaren kasuan, gaitasun fisikoa oinarrizkoa bilakatzen da.

Azken hilabeteetan gaurkotasun nabarmena hartu du *Hondalea* izeneko artelanak. Eta esan genezake arestian aipatutako irisgarritasun mota biak biltzen dituela: batetik, artelan gisa duen esentzia eta balioa, zeintzuek pertsona bakoitzak bere erara ulertuko dituen; eta bestetik, eraiki den parajea (Donostiako Santa Klara uhartea), inolaz ere pertsona ororentzat irisgarria ez dena. Artelan gisa duen balio edo garrantzia epaitzeko zeregina arte kontuetan ni baino jakintsuagoak direnei utziko diet. Irisgarritasun fisikoak, aldiz, bete-betean harrapatzen nau: desgaitua izateaz gain, desgaitasunari buruzko doktore tesia antropologian egiten ari naizelako. Horregatik, esan nezake, gure gizarteak hain garrantzitsutzat duen gaitasunaren imajinario kolektiboan, desgaitasuna dugun pertsonok aparteko orrialde batean kokatuta gaudela.

Ildo horretan, gaitzespen anitz egin dituzte *Hondalea* ikustera Santa Klara uhartean barrena joan ezin diren kolektiboek: diru publikoarekin eginiko artelan bat publiko mota guztientzat eskuragarri ez dagoelako. Eta eraso beste defentsa Donostiako Udalaren aldetik: tokia bera dela irisgarritasunik gabea, joango direla irisgarritasuna egokitzen... Alabaina, nik esango nuke irisgarritasunaren gaia oso kontuan hartu dutela proiektu hau antolatu dutenek, ezen, erakustokia non dagoenaren aferaz gain, bertaratzeko sortutako diskurtsoa ahaleginean oinarrituta dago. Web orriko bideoan, behin eta berriz, gizartea mugiarazteko jarrera nabarmen agertzen da. Herritar guztientzat eraikitako diskurtso horrek



Gehie

1 De itz on MIKI

2 Ga AND

3 EH zu EA JON

4 Ho os AINH

***Data: 2021ko Abuztua***

## Marea Urdinako kideak irratian

Igor, Marea Urdinako kidea, Azpeitian Gautenak ireki berri duen zentroari esker bere familiaren gertu bizi da, bere herrian. Zentru honen ezaugarriak eta ematen duen zerbitzu garrantzitsuaz gizartea jabetzeko Euskadi Irratia izan da bixitan, bertan besteak beste Maria, Igorren arreba, elkarrizketatu dute.




Mila esker Gautenari egiten duzuen lanagatik eta mila esker Azpeitiko Udalari zentro hau irekitzeko eman dituzuen erraztasunengatik.
#azpeitiaurdina

## Marea Urdinako kideak egunkarian

Ona hemen Marea Urdina ko kide den Juan Ramon Alberdik Donostiako Hondalea-ren irisgarritasunaren inguruan idatzitako iritzi artikulua. Zoragarria! Juan Ramon, zu ere URDIN!

#IRISGARRITASUNA #HONDALEA

Artikulua:
https://www.berria.eus/paperekoa/1876/013/001/2021-07-27/artearengana-iristeko-gaitasuna.htm?fbclid=IwAR3PsI8-xVcOF_sMtTb-FZkm5Zh_Sn0n-zGjQglthFN98iNNkzyIrP7EXHU

## Udan jasotako babesak


















#mareaurdina
naiz


#mareaurdina
naiz






#mareaurdina
naiz

***Data: 2021ko Iraila***

## Gautenako Azpeitiko zentrua

Mila esker Felix Arregiri Marea Urdina gatik esan dituen hitzengatik, lanean jarraitzera animatzen gaituzte.

Gu ere oso harro gaude gure bailaran aniztasun funtzionala duten pertsonekiko dagoen sentsibilizazioagatik eta konkretuki autismoaren inguruan lortu den ezagutzagatik.
Mila esker Azpeitiko Udalari egin duen apustuarengatik eta mila esker Gautenari zuen zerbitzuak herrietara hurbiltzeko egiten ari zarete ahaleginengatik.
Noski, ZUEK ERE URDIN!
Mila esker Uztarria Azpeitiko Herri Ataria ri ere, gai honi ematen hari zareten difusioarengatik.
#azpeitiaurdina

**Bailara honetan Marea Urdina elkartea lan handia egiten ari da norabide horretan. Nola baloratzen duzu haien lana?**

Familietatik sortutako esperientzia eta dinamika da Marea Urdina, eta horrek meritu izugarria dauka. Izugarria da gurasoek sentitzen dutena adierazteko duten askatasuna, seme-alaben bidez inklusioa bultzatzeko egiten duten lana, baita bide horretan lortzen dituzten erronkak ere. Marea Urdinaren adibidea esanguratsua da, Gipuzkoan gurasoek eta familiek beren seme-alabak edo senitartekoak gizartean txertatzeko zer rol jokatzen duten ikusarazteko. Hori ez da egiten edozein lekutan. Hemen sortu da Marea Urdina, Hernanin beste elkarte bat dago, Hondarribian ere bai... Badira esperientziak, eta horiek martxan jartzen dituzten dinamikak eta proposamenak egundokoak dira; lortzen dituzten emaitzek eragin izugarria dute. Gure aldetik, ahal den laguntza guztia eskainiko diegu, azken batean, beraiek egiten duten lanak gugan ere eragin handia duelako. Uste dut Marea Urdinakoentzat ere albiste ona izango dela Azpeitian zerbitzu hauek martxan jarri izana.


UZTARRIA

AZPEITIA

**Felix Arregi: "Harro egotekoa da autismoari Gipuzkoan ematen zaion erantzuna"**

Mallo Oiarzabal 2021-09-05 10:21



Felix Arregi. (Alex Berasategi)

Lurreko seinaleztapena, Elkarguneko harrera mahalaren aurrean. (Argazkiak: udala)

## Irisgarritasuna Elkargunean

Zorionak Elkarguneari denonak diren eta denontzat izan behar luketen instalazioak irisgarriago izateko egiten ari zareten lanagaitik.

#AZKOITIAURDINA



MAXIXATZEN.EUS

Lurreko seinaleztapena jarri dute Elkargunean ikusmen urritasuna duten pertsonentzat - Azkoitia - Maxixatzen.eus

## Nazioarteko egunak: Duchenne

Zoragarria Azpeitiko Udalak eman digun berria: Irailak 6 eta 7 gauean aurten ere Azoka Plaza GORRIZTATUKO du Duchenne duten pertsonen alde, Azpeitian konkretuki IREN-en alde. Dakizuen bezala Irailak 7 Duchenneren Kontzientziaziorako Nazioarteko Eguna bait da.




Eta zuk? Zer egin dezakezun galdetzen duzu? GORRIZTATU ZAITEZ ZU ERE! Irailak 7-an eraman ezazu soinean zerbait gorria Duchenneren alde.
GORRIZTATU GAITEZEN DENOK DUCHENNE DUTEN PERTSONEN ALDE.

## Eskola Kirola Egokitua

Atzo aurkeztu genuen gure bailaran Eskola Kirol Egokitua egiteko eskeintza, orain gure txanda da, animatu apuntatzera!

Kirola inklusioaren giltzarrietako bat delako, kirola egitea denon eskubidea delako. #kirolaguztiontzat






## Spain Backyard Ultra

Imanol Aleson non dabilen galdetuko duzue batzuk, Spain Backyard egiten ari da momentu hauetan.




- 6,7 km-ko zirkuitoa
- Ordubetero buelta berri bati irteera ematen zaio
-111 partaide
Erronka? Partaide bakar bat geratu arte bueltaka segitu behar...🏃🏃
Hemen ere Imanol Marea Urdinarekin gogoratu da (buelta bakoitzean)
Zu bai zarela URDIN!!!

## Nazioarteko egunak: Zeinuen Hizkuntza

Gaur Zeinu Hizkuntzen Nazioarteko Eguna da. Badakizu munduan 70 miloi pertsona gor daudela eta 300 zeinu hizkuntza desberdin?

#mareaurdina



***Data: 2021ko Urria***

## Gurasoen Txokoa

Aniztasun funtzionala duten pertsonen senideak askotan ez ulertuak, bakarrik edo/eta galduta sentitzen gara, batipat hasieran. Prozesu honetan aurretik doazen edo/eta prozesu bera bizitzen ari diren senideetatik asko ikasi dezakegu. Horretarako "gurasoen txokoa" izenarekin aniztasun funtzionala duten senideentzat bilerak antolatu ditugu astelehenetan Azpeitian. Animatu zaitez, ez zaude bakarrik.




## Domusa Teknik 40 MLK Mendi Lasterketa




"Zer egin dezaket?" galderari beti erantzuten diogu "zer dakizu egiten?"galderarekin. Oraingoan Domusa eta Lagun Onak-ek erantzun digute Azpeitian lehenengo aldiz antolatuko den mendi lasterketan gurekin kolaboratuko dutela adieraziz. Gora zuek! Gora Domusa Teknik 40 MLK Mendi Lasterketa! Zuek ere URDIN! #inklusioa

## Izarraitz Lanbide Heziketaren donazioa




Mila esker "Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta"-ko 2. mailako" Izarraitz Lanbide Heziketako ikasleei, zuen lanaren ondorioz irabazitako sariaren zati bat guri dohantzan emateak giza baloreetan oinarritutako heziketa bat jaso duzuela baieztatu besterik ez du egiten. Dudarik ez izan, inklusioan inbertituko dugula. Gora zuek! Gora Izarraitz Lanbide Heziketa! Zuek ere URDIN!

## Erlo 11 aldiz Marea Urdinare alde

Gaur goizean hasita eta hogeitalau orduz, Haritz Iturbek (Moreno) Erlo mendira igo eta jaisten jardungo du etenik gabe, Marea Urdinari babesa emanez. Helburua: Aniztasun funtzionala duten pertsonen ikusgarritasuna eta inklusioa aldarrikatzea.Mila mila esker Moreno egiten ari zarenagatik. Zu bai zarela URDIN!



***Data: 2021ko Azaroa***

## Marea Urdinaren ipuina

Mila esker @bizipozaelkartea-ri Marea Urdinari buruz egin duzuen ipui zoragarri honengaitik eta nola ez, mila esker Amagoia Mujika eta Jose Angel Lopetegiri gu horren ondo definitzen gaituen testu eta marrazkiak egiteagaitik. Zuek denok zarete URDIN!



***Data: 2021ko Azaroa***

## Ibarmia enpresan Sentsibilizazio Jolasak

Egunerokotasunean Ibarmiako langileak Marea Urdinagatik erakusten duten gertutasuna eta babesa direla medio, larunbatean ospatu zuten bertako familientzako ate irekietara gonbidatuak izan ginen. Nola ez gonbita onartu eta Ibarmiako langile eta bere umeentzat sentsibilizazio jolasak antolatu genituen. Enpresa mundua ere inklusioarekiko sentsibilizatu behar delako, bejondeizuela, zuek ere URDIN!




***Data: 2021ko Abenduan egingo ditugunak***

- *Barraka Urdinak San Andresetan.*
- *Gabonetako PIN-ean (Azpeiti eta Azkoitian) ordu batzuk aniztasun funtzionala duten umeentzat eta sentsibilizazio jolasak.*

## 3. PROIEKTU URDINAK

Beste hainbat proeiktu aurrera eramaten edo elkarlanean ari gara. Atal honetan zerrendatzen ditugu:

**Azkoitiko Igerilekuko irrisgarritasun plana**



Este informe técnico pretende repasar algunas cuestiones de accesibilidad básicas que se deberían tener en cuenta en ELKARGUNEA ZUBI-AURRE KIROLDEGIA de Azkoitia

INFORME DE ACCESIBILIDAD-POLIDEPORTIVO DE AZKOITIA-2019

Alicia Figueroa de la Paz
Directora técnica de la FGDA
Marea Urdina
Instalakuntza Duinak Orain!



Ulertu Azkoitia eta Azpeitia piktogramen bitartez




Dantza egokitua




Dantza probatzeko aukera paregabea

¿Te interesa probar el baile?

Born To Dance dantza eskolako den Jenny Calero Marea Urdinara gerturatu zen eta aniztasun funtzionala duen umeekin zerbait egiteko gogoa adierazi zigun. Berarekin hitzegin ondoren, "froga" saio bat egitea pentsatu genuen, gure senideek dantza frogatu dezaten egun bat (larunbat goiz bat) eta hortik aurrera ikusiko genukeen jarraipena nola eman (ez dago inongo konpromezurik). Apuntatzen zarete? Horrela bada bete ondorengo galdetegia (aniztasun funtzionala duen pertsonaren datuak ipini mesedez)

La profesora de baile de la escuela de danza Jenny Calero se acerco a Marea Urdina y nos mostró su interés por hacer algo con nuestros familiares con diversidad funcional.
Después de hablar con ella, acordamos realizar una sesión de "prueba" para que nuestros familiares pudiesen probar la danza. Sería un sábado a la mañana y a partir de ahí ya veríamos como seguir (o no).

Galdetegia betetzeko epea: Martxoak 15 (astebete)

Plazo para rellenar el cuestionario : 15 de Marzo (una semana)

**Zinema irisgarria gorrentzat : Bukle magnetikoa**




**Marea Urdina FILMA eta ERAKUSKETAren hedapena beste herrietara**



2021ko Azaroa
Marea Urdina Elkartea

**Marea Urdinak eginiko publikazio honek "Creative Commons Reconocimiento-SinObraDerivada 3.0 Unported" lizentzia du**